

Uztapide gogoan

Deia, 1983-06-17.

Bertsolaritzako mundua aparta da.

Talaitxo honetatik nire ikuspuntua ematen ari naizenez gero, barkagarri izango al zait barrutik ezagutu ez dudan aparteko mundu hau nondik zelatatu eta maite izan dudan aipatzea. Nire amaren ama, Bixenta Lujanbio, "Txirrita"ren lehengusu-propioa zen, bi anaien haurrak eta Hernaniko "Latxe-zahar" baserri berean jaioak; ez nuen nik Txirrita bertsolaritzan ezagutzeko adinik, baina sarri ikusi nuen Hernanin. Bestalde, Zeraindik Andoaina jaitsi zitzaidan nire aitaren aita, Gregorio, bertsolari apala nuen, bertso paperak atera zituen eta Antonio Zavalak hain nagusiki sortarazi duen mundu eder honetako *Auspoan* lekutxo bat aurkitu duena.

Baina *Uztapidez* ari gara.

Manuel Olaizola, Zestoako Endoia bailaran, eta "Uztapide" baserrian jaio zen 1909garrengo maiatzaren 10ean. Itsasaldera zuen bista ederra, garoa hurbil eta ura urrun, soroak eta barrutiak zabalak, oraingo pinuen tokian pagoa zen nagusi.

Poesia eta bertsolaritza ernetzeko inguralde egokia.

Baina zero honetan lana ere egin behar zuen bertsolariak, eta Uztapide pasa zen baserrikoak berekin duen morrontzatik, ikazkintzatik, zerratik eta, batez ere, artzantzatik: "Gure leendabiziko artzaitxo pobria, eguzki aldetikan berriz erregiak, aiek ziran lenengo bisitatzailleak".

Hala ere, ona den zeruak berak txarrik izango du, eta Uztapideko ederrak, negua zuen gogorra?

Tarteka bertsoan, gaztedanik berekin izan zuen doain lantzen eta gozaten, lagunartean eta jaietan herriz herri, noski, baina baita txapelketetan ere; 1962koan aspaldi txapeldun zen Basarri handiari, urtetako lagunari; irabazi zion Uztapidek txapela. Hamar urte gero, ustekabean *Zeruko Argia* aldizkariari laguntzeko Anoetako pelotalekuan ari zela, mutu geratu zen. Zortzi urte aurretik izan zuen sagar biltzen ari zela bihotzaren abisoa, baina bertsoan aritzeko gai zen. Oraingoa, berriz, hasi nahi eta ezin!, burua *moteldu* zitzaiola esaten zuen.

Oiartzungo Laguntzarrena baserrira 1950n ezkondu zenez gero, hemen izan zuen laster gogorrago batek konturik gabe utzi zuen.

Eta joan da, bihotzak eramanda. Utzi du Euskal herrian ala ere, berak zituen gizatasun eta apaltasun lasai baten exenplo argia, euskarari eta herrizaletasunari eskeini az dena.

Mundua, mundu aparta, zen Oiartzunen bertsolariari betirako agurra egitera hurbildu zitzaiona.